

Kataluniako independentziaren debatea

Talde independentistak zatituta joango dira Kataluniako Diadara

Burujabetasunaren eztabaida da protagonista biharko Jai Nazionalen

Bihar ospatuko da Barcelonan Kataluniako Diada, Euskal Herriko Aberri Egunaren parekoa. Aurtengo ospakizunaren inguruan aspaldian ez bezalako interesa sortu da Katalunian eta kanpoan ere bai, independentziaren gaineko eztabaida dela eta.

DONOSTIA

Terra Lliure erakunde armatuko sektore nagusiak armak utzi eta gero eta Esquerra Republicana-n (ERC) integratu ondoren hasi zen berotzen giro politikoa Katalunian, uztailean. Abuztuan, Soviet Batasuneko prozesu berriarekin Baltikoko herrialdeen independentzia ebiteazina bihurtzean, Jordi Pujol lehendakari katalanak jarri zuen gaia berriro pil-pilean Kataluniak eta Lituaniak eskubide berdinak dituztela esanez. Geroztik, ordea, asko moderatu ditu hitzak Pujolek, eta Espainiaren batasunaren alde ere mintzatu da. Azken kolpea hiru apezpiku katalanek burujabetasuna defendatzea izan da.

Hala ere, EGUNKARIAK kontsultatutako Kataluniako iturrien arabera, ekaitz politikoa ez da hainbestera-koa. «Independentzia eztabaida badago, baina ez pentsa orain Katalunian denak horretaz mintzatzen ari direnik edo denak independentista bihurtu direnik», komentatu zigun Crida per la Solidaritat —'Elkartasunerako Deiadarra'— erakundeko partaide batek.

MDT ('Lurraren Defentsa Mugimendua') alderdiaren iritziz, bestetik, hauteskunde kanpainako giroan ulertu behar dira independentziaren buruzko adierazpenak, eta beraz, egoera ez da komunikabideek isladatutakoaren tamainakoa.

CiUko buruek independentziari buruzko jarrerak bigundu dituzte

BARCELONA

CiUko buruak aurretik esandakoak biguntzen aritu dira azken egunotan. Koalizioa osatzen duten bi alderdietako buruek independentzia baztertu dute eta Konstituzioa eta autonomi estatutua garatzearen alde egin dute.

Unio Democrática de Catalunya (UDC) lehendakariak, Josep Antoni Duran Lleidak, «Kataluniaren subirotasunaren zati bat Espainiari pasa behar zaiola» adierazi zuen, bere ustez «Espainia eta Europa maila altuago batean daudelako». Independentzia eskatzen dutenei «ulertzen diela» onartu ondoren, Espainia estatu konfederala bihurtzearen alde



Euskaldunak 1978ko Diadan, Fossar de los Moreres-eko ekitaldian.

ROBERT

Crida eta MDT ez doaz bat eginik Diadan. Cridak manifestaldi «bateraturako» deia egin du, eta ERCz gain, beste zenbait mugimendu eta elkarte ere gehitu zaizkio. MDTk eta Catalunya Lliure-k, borroka armatua defendatzen segitzen duten alderdiek, beste ekitaldi batzuk antolatu dituzte. Gobernu autonomoan agintean dagoen CiU koalizioarentzat, estatutua onartu zenetik ez dago kalere erreindikazio beharrik, «subiranotasuna egunero eragiten bait da Parlamentetik». Beraz, koalizioak ez du ezer berizirik konbokatzen, eta Legebiltzarrak antolatutako lore eskaintza eta biltzar publikoarekin konformatzen dira.

Galdutako askatasunaren oroigarri

Sant Jordi eguna baino, irailaren 11ko Diada da Kataluniako benetako egun nazionala, burujabetasunaren aldeko eduki erreindikatibo markatuena daukana. Izan ere, garaipen baten ospakizuna beharrean, galdutako burujabetasunaren oroigarria da Diada: 1714ko irailaren 11an, Felipe V. tropa espainolak Barcelonan sartu ziren.

Diadako ekitaldiak bi tokitan izaten dira. Bata, Fossar de las Moreres deritzon lekuan, bertan hil bait ziren espainolen kontra borrokan Barcelonako azken defendatzaileak. Bestea, Rafael de Casanovas-en estatua. Casanovas izan zen Barcelonako azken *conseller en cap* edo buruzagia, 1714 hartan erresistentzia antolatu zuena.

1977an Diadak berriro ospatzen hasi zirenean, ia milioi bat lagun bildu ziren Barcelonan alderdi nagusi guztiekin, baita ere PSC-PSOEekin. Estatutua onartu eta gero, zatitu egin da azken hamar urteetan Diada. Ekitaldi instituzionala geratu da alde batetik, eta talde independentistena bestetik, hauek ere zatituta maiz.



Joan Rigol eta Josep Antoni Duran Lleida UDCKo buruzagiak.

TONI ALBIR

teke Europako beste herrientzat arazo nazionalak konpontzeko orduan». Hala ere, autonomien estatuarekin «oso pozik ez daudela» onartu zuen,

«gobernu sozialistaren finantz politika guztiz diskriminatorioa delako eta gure beharrei aurre egiteko behar diren baliabideak ez ditugulako».

Autodeterminazioa independentziaren lehen urratsa dela dio ERCK

BARCELONA

ERCK Kataluniaren autodeterminazio eskubidea onartzeko eskatu dio Madrileko Gobernuari, «independentzia lortzeko lehen urrats moduan». Independentzia lau urratsen bitartez eskuratzea proposatu zuen Angel Colom ERCKo burua: «Katalunia lurralde ez espainola dela onartzea; Kataluniak Telefonica eta Renfe bezalako enpresak beregain hartzeko behin-behineko egitura politikoak edukitzea; subirotasun fiskala eta azkenik Armada Espainiaren zatiezintasuna gorde behar duela esaten duen Konstituzioaren zortzigarren artikulua bertan behera uztea».

Kataluniako parlamentuan dau den alderdiei independentziari buruz pentsatze

Itun autonomikoa azkartzeko eskatu du PPk

MADRIL

PP itun autonomikoa ahal bezain laster egiteko eskatuko dio Gobernuari, «Eki Europako gertaerak Euskal Herrian eta Katalunian eragina izan ditzaketelako». Jose Maria Aznar PPko lehendakaria bere alderdiak gobernatzen dituen autonomi elkartearen lehendakariak bildu zen. Madrileko Gobernuarekin negoziatu behar duten hitzarmen autonomikoaren aurrean jarrera bakarra zehazteko.

Federalismoa eta Konstituzioa aldatzearen aurka dago PP, «autonomien estatua azken punturaino garatu ez delako». Aznarren alderdiak beharrezkotzat jo du gobernu zentralak autonomien eskuduntzak gehitzea. Alderdiaren ustez, «autonomien arteko desberdintasunak leundu egin behar dira eta horretarako derrigorrezkoa da finantzazio sistema aldatzea». Europako Komunitateak hartzen dituen erabakietan autonomiek parte hartzearen alde azaldu zen alderdi eskuindarra.

Autonomiak «agorutik», Estatu federala eskatu du IUk

MADRIL

IUk Espainia estatu federal bat izan dadin proposamen bat prestatu du. Irailaren 16an bilduko da IUko lehendakariak bateratua, eta Estatuaren federalizazioarako plangintza bat onartuko dute. «Autonomoen bidearen agorpenak aurrerapausu bat eskatzen du». Konstituzioan oinarriturik, autonomi Estatuaren aldetik eta finantzabide sistemaren erreforma proposatu ditu IUk.